



Nekazaritzaren eragina

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.

HELBURUAK

- Ingurugiro arloko arazoentzako irtenbide alternatiboak bilatzea.
- Industri nekazaritzak ingurugiroari egiten dion erasoaz ohartzea.

Ondoren, industri nekazaritzak ingurugiroari dakartzkion ondoreak aztertuko ditugu. Eragin horren arrazoi nagusiak, beste askoren artean, merkatuko pestizida eta ongailu inorganikoen gehiegizko erabilera dira. Taldeka, aholkatutako bibliografian —edo ikastetxean izan daitekeen beste batean—, aurkeztutako arazoentzako irtenbideak bilatu beharko dituzue.

INDUSTRI NEKAZARITZAREN ERAGINA	IRTENBIDEAK
1. Lurzoruaren higadura eta haren emankortasun galera. Lurzoruan nutrienteak birziklatzen dituen mikroorganismo gutxiago.	
2. Airearen kutsadura, erregai fosil gehiegi eskuratu, tratatu, garraiatu eta erretzearen ondorioz.	
3. Lurpeko uraren kutsadura, isuritako pestizida hidrosolugarriak, ongailu inorganikoetatik eratorritako nitratoak eta ureztatzeko uretatik eratorritako gatzak direla eta.	
4. Ibai, erreka, laku eta estuarioen kutsadura eta arrain zein itsaskien hiltzea. Ur geruzen ahidura, ureztatzeko ur gehiegi ateratzearen ondorioz.	
5. Animalia eta landare espezieen aniztasun genetikoaren galera eta desagertzea, biologikoki askotarikoak diren baso eta larreak mota bakarreko monokultiboek ordeztu direlako.	
6. Osasunarentzako arriskuak, edateko uretan, jakietan eta atmosferan dauden nitrato, pestizida eta bestelako gaien eraginez.	

Eztabaida

Ikerketaren ondoren, proposatutako irtenbideez mintzatuko gara, eta ondorengo galderei erantzuten saiatuko gara:

- Garapen jasangarriaren ikuspegitik, jasangarri deritzozu industri nekazaritzari?
- Zein da, zure ustez, jasangarriagoa: betiko era ala industrialia?
- Aurkitu ahal dugu ordezko metodo eta jokabiderik beste bide batzuetan, nekazaritza ekologikoan kasu?

Proposatzen dizuegun ariketa egin eta galderei erantzuteko, honakoetan bila dezakezue informazioa:

- ◆ TYLER MILLER, G. Jr. **Ecología y Medio ambiente**. Grupo Editorial Iberoamericana. Mexiko, 1994.
- ◆ **Ingurugiro-nekazaritza: prestakuntza eta ardura hartzea / Carpeta de formación y sensibilización agroambiental**. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 2000. Karpeta honetan nekazaritza eta ingurugiro arloko baliabide eta ekintzei, kutsadurari eta ingurunearen zaintzari buruzko edukiak aurkezten dira. Nekazaritzako jokabide egokien kodea ere aurkituko duzue.